



*Bigarren Lehendakariodea eta Lan eta Enpleguko Sailburua  
Vicelehendakari Segunda y Consejera de Trabajo y Empleo*

**AGINDUA, 2021EKO EKAINAREN 11KOA, BIGARREN LEHENDAKARIOEDE ETA LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA, 2021EKO EKAINAREN 15ERAKO DEITUTAKO GREBAN EA EKO ERAIKINEN ETA LOKALEN GARBIKETAKO AZPISEKTOREETAKO LANGILEEK GIZARTEARI EMATEN DIZKIOTEN FUNTSEZKO ZERBITZUEI EUTSIKO ZAIELA BERMATUKO DUENA.**

ELA sindikatuak eraikinetako eta lokaletako garbikuntzako azpisektore guztietarako (Osadokitza, Hezkuntza, Komisaldegia, bulegoak, enpresa pribatuak, etab.), aplikaziokoa den hitzarmena gorabehera, greba deialdia egin du Euskal Autonomia Erkidego osoan ekainaren 15erako, lanaldi osoan.

Deialdiaren helburua ondorengoa da: «*Eraikin eta lokaletako sektoreetan, feminizatuak denak, dagoen soldata-arrakala deuseztatzea kale garbikuntzako tokian tokiko sektore maskulinizatuarekiko. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioak eta estutuan transposizioz indarrean dauden Europako zuzentzauek eskatzen duten balio berdineko lanpostuek soldata berdina izatea, baina errealitatean, azpikontratazio politika eta patronalen jarrera itxia oztopo bilakatzen dira soldata berdintasunaren aldarrikapenerako*».

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba-eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen oinarrizko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdinean ditu greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola: bizia, osotasun fisikoa, osasuna, hezkuntza, joan-etorri askea, informazio-askatasuna eta benetako babes judiziala, besteak beste. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea herritarren gainerako oinarrizko eskubideen kontrako izan daitekeenez, eta Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatuta dagoenaren arabera, gizaratearentzako ezinbesteko zerbitzuak mantentzen direla ziurtatzeko neurri egokiak hartu behar dira, auzitan dauden eskubideetako bat bera ere gauzatu gabe gera ez dadin.

Hala ere, aurreko premisa gorabehera, begien bistakoa da ezen, oinarrizko eskubideak mugatzen dituen edozein neurri konstituzionala izan dadin, proportzionaltasunaren printzipioa zorrotasunez aplikatuz hartu behar dela, eta,

horretarako, hiru baldintza bete behar ditu neurri horrek: neurria aplikatuz proposatutako helburua lortu ahal izatea, hots, «egokitasun-judizioa» deritzona; egitatea aztertuta, ondorioztatu izana ez dagoela neurri apalagoren bat helburu hori eraginkortasun berarekin lortzeko, hau da, «beharrizanezko judizioa» deritzona; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, «proportzionaltasun-judizioa, zentzu hertsian». Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Konstituzio Auzitegiak, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992 eta 126/2003.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta, ondorioz, nahitaezkoa dela interes desberdinak kontuan hartuta egoki orekatuz jokatzeko. Hori dela-eta, ziurtatzeak berme gisa balio behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta; betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela –amore eman, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan–, haien eskubideak grebaren bidez babesteak ezinbesteko zerbitzua jasotzeko eskubidearen komunitate/pertsona titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien errebindikazio edo eskakizunek arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Hori dela eta, gobernu-agintaritzak gutxieneko zerbitzuak ezarri behar ditu aipatutako hiru eremuetan zerbitzu jakin batzuen zehaztasuna babesteko. Zerbitzu horiek agindu honetan zehazten dira.

Greba-deialdiaren denbora- eta lurralde-eremuari dagokionez, deialdiak egun bakar bati eragiten dio, ekainaren 15ari, lanaldi osoan, eta Euskal Autonomia Erkidego osora zabaltzen da.

Jarduera-eremuari dagokionez, greba-deialdi honek eraikinak eta lokalak garbitzeko azpisektore guztiei eragiten die. Beraz, deialdi horrek aniztasun eta heterogeneotasun handia du eragindako zentroi dagokienez, bai jarduera dela-eta, bai egituragatik. Kasu batzuetan, gizarteko oinarrizko zerbitzuekin –osasun, egoitza (egoitza geriatrikoak, eguneko zentroak eta adingabeen egoitzak) eta hezkuntzarekin– zerikusia duten esparruei eragiten diete, baina, greba-deialdiak eragiten dien beste zentro batzuen kasuan, aldiz, horietan emandako zerbitzua hainbat kasutan publikoa izan arren, ez da oinarrizkotzat hartzen greba honen ikuspegitik, horrelakoetan garbiketarik ez egoteak ez baitie oinarrizko eskubideei eragiten, eta ondorioz, era honetako greba batean desegokia izango litzateke gutxieneko zerbitzuak ezartzea. Horregatik, hain zuzen, ezarri behar ditu gobernu-agintaritzak gutxieneko zerbitzuak adierazitako hiru esparruetan zerbitzu jakin batzuen oinarrizkotasuna babesteko. Agindu honetan daude zehaztuta horrelakoak.

**Osasun-esparruari dagokionez**, garbiketa eta desinfekzioa, esterilizazioarekin batera, infekzioaren kate epidemiologikoa ospitaleko ingurunean hausteko oinarrizko elementuak eta eraginkorrenak dira. Ondorioz, larrialdiko eta kirurgiako zerbitzuetara joaten

diren edo ospitaleraturik dauden pazienteei beharrezko arreta eman dakien, osasun-zentroetan gutxieneko higieena egon beharra dago Konstituzioaren 43. artikuluan ezarritako osasunerako eskubidea babesteko.

Garbiketa oinarrizkoa izan da betidanik eremu horretan, eta, une honetan, SARS-CoV-2 Koronabirusaren ondorioz sortutako pandemia-egoera bati aurre egiten ari garela kontuan hartuta eta birusa transmititzeko metodoak kontaktua eta tantak direla gogoan izanda, funtsezkoa da lokalak eta gainazalak garbitzeko metodoak indartzea.

lido horretan, kontuan hartu behar da Lehendakariaren maiatzaren 7ko 23/2021 Dekretua, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriei buruzkoa, betetzen dela. Dekretu horren arabera, osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduen titularrek langileen eta pazienteen ongizatea bermatzeko antolamendua, prebentzio- eta higie-neurriak hartuko dituzte. Horrekin batera, kontuan hartu behar da, Osasun Sailburuaren 2020ko uztailaren 28ko Agindua, zeinaren bidez aldatzen baita agindu honen eranskina: Agindua, 2020ko ekainaren 18koa, Osasuneko Sailburuarena, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero. Agindu horren 4.2 puntuak, "*Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetan segurtasuna bermatzeko antolamendu-neurriei*" buruzkoak, esparru horretarako betebeharrak espezifiko jakin batzuk ezartzen ditu, osasun-zerbitzuek bete beharrekoak, titulartasuna edozein dela ere. Guzti horiek *antolamendu-, prebentzio- eta higie-neurriak hartu behar dituzte beren langileentzat, erabiltzaileentzat eta, arrazoia edozein dela ere, haiekin harreman fisikoa duen beste edozein pertsonarentzat, eta, bereziki, gutxieneko izaerarekin, honako hauei buruzko neurriak: pertsonen arteko segurtasun-distantzia, erabilera publikoko leku itxietan maskarak erabiltzea, edukierari, eskuen eta arnasbideen higieena, bisitan antolatzea, lekuak eta aretoak partzelatzea eta ibilbideen diseinua, garbiketa- eta desinfekzio-protokoloak, bai eta agintari eskudunek ezartzen duten beste edozein neurri ere.*

Osasun-arloan, funtsezko jarduera hori ezinbestekoa da orain, une oro, programatuta dauden edo puntualki egiten diren garbiketa-eragiketen bidez bermatzeko agente biologikoak ez direla aktibatzen, eta, hala, agenteok ez direla hedatzen. Gainera, kontuan hartu behar da, era berean, isuriak ezabatu eta garbitu egin behar direla eta, horrez gain, hondakin biologikoak batu, etab. Izan ere, katebegien gaineko azken jarduera horiek, bereziki garrantzitsuak dira birusa hedatu ez dadin.

Argi dago zeregin horiek guztiak egiten dituzten langileek ez luketela arrisku gehigarririk jasan behar halako lanak egitean. Ondorioz, beren burua babesteko ekipok eduki beharko dituzte, horretarako apropos esleituak.

Beraz, osasun-krisia dela-eta osasun-agintariek hartutako neurri eta gomendioen ondorioz, osasun-agintarien neurriek ezartzen duten intentsitatearekin eta aldizkakotasunarekin egin behar da garbiketa-zerbitzua, eta, nolana ere, COVID-19aren aurrean ezartzen diren jardura-protokoloen arabera. Bereziki da nabarmentzekoa garbiketa, eta zehazki desinfekzioa, zentro guztietan, zona guztietan, arrisku handiko eremuetan (larrialdi-zerbitzua, kirofanoak, erditze-gelak, erredura handien unitatea, unitate koronarioa, dialisi eta tratamendu onkologikoen eremua), erabilera komuneko eta joan-etorri handiko guneeetan eta kontaktu gehien duten gainazaletan ere, besteak beste barandetan, eskubandetan, botoietan, ateen heldulekuetan, etengailuetan, mahaietan, eskaileretan, igogailuetan, iturrietan, teklatuetan, telefonoetan, etab.

Ondorioz, beharrezkoa da garbiketa-zerbitzuari dagozkion gutxieneko zerbitzuak mantentzea. Zerbitzu horiek COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiko egoeraren aurreko grebetan ezartzen ziren zerbitzuen aldean handitu ziren. Hala egin da antzeko ezaugarriak dituzten aurreko deialdietan, nahiz eta aztergai duguna baino lurralde-eremu txikiagokoak izan, hala nola, Gipuzkoako eraikin eta lokalen garbiketaren sektorean 2021eko urtarrilaren 21 eta 22rako eta martxoaren 15, 16, 17 eta 18rako erregistratutako bi greba-deialdietan, bai eta Osakidetzaaren – Euskal Osasun Zerbitzuaren – Enpresa kontratisten garbiketaren sektorean 2021eko maiatzaren 27an egin zen deialdian ere. Horietan guztietan, gutxieneko zerbitzuen aginduetan ezarri zen garbiketa-lanak ohiko langileen %100ek egin behar zituztela, COVID-19aren aurrean ezarritako jardura-protokoloetan jasotako zehaztapenak eta neurriak betetzeko.

**Egoitzen-esparruan**, egoitza geriatrikoek, eguneko egoitzek eta adingabeen egoitzek duten «funtsezko» izaera hartu behar da kontuan, gehienbat haien prestazioen onuradunak mendekoak direlako; kasu gehienetan, gainera, osasun-defizit handiak dituzte eta sistemaren laguntza integrala behar dute legez aitortuta dituzten mendekotasun-graduak arreta eman dakien. Horretaz gain, eguneroko bizimoduaren berezko lanak egiteko laguntza pertsonalaren osagai handi bat ere badago. Konstituzioak bereziki babesten ditu pertsona horiek guztiak, Konstituzioaren 50. artikuluan jasota geratu denez, eta Konstituzioaren 15. eta 43 artikuluetan jasota dauden bizirako, integritate fisikorako eta moralerako eta osasunerako eskubideak ere horrekin lotuta daude egoera honetan. Horri dagokionez, oinarriko garbiketa beharrezkoa da zentro horietan higiene egokia egon dadin eta, era horretan, eguneko zentroen egoiliarren edo erabiltzaileen osasuna arriskuan jar ez dadin.

SARS-CoV-2 koronabirusak eragin duen egoera dela eta, osasun-agintariek zenbait neurri eta gomendio onartu eta argitaratu dituzte, besteak beste, garbiketa eremuan.

Eremu soziosanitarioan, kontuan hartu behar da Lehendakariaren maiatzaren 7ko 23/2021 Dekretuak, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriei buruzkoa, xedatutakoa. Dekretu horren 3. artikuluan, "Zerbitzu sozial eta sozio-sanitarioetako zentro, zerbitzu eta establezimenduei" buruzkoan, honako hau xedatzen da: "*Etengabeko ikuskapeneko neurriei eutsiko zaie, gizarte-zerbitzu eta zerbitzu soziosanitario guztien titularrek instalazioak desinfektatzeko, prebenitzeko eta egokitzeko ezarritako arauak betetzen dituztela bermatzeko, non zerbitzu horien ohiko jarduera eskatutako baldintzetan garatuko den, kutsatzeko arriskuak prebenitze aldera*". Horrekin batera, kontuan hartu behar da Osasuneko sailburuaren 2020ko uztailaren 28ko Aginduan ezarritakoa, COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzko Osasuneko sailburuaren 2020ko ekainaren 18ko Aginduaren eranskina aldatzen duena, normaltasun berrirako trantsiziorako planaren 3. fasea gainditu eta gero. Agindu horren eranskinaren 4.3 puntuan, "Gizarte-zerbitzuetako zentro, zerbitzu eta establezimenduei" buruzkoan, berariazko betebeharrak ezartzen dira, egoitza-izaerako gizarte-zerbitzuek eta eguneko zentroek bete beharrekoak, eta antolamendu-neurriak, prebentziokoak eta higienekoak hartu behar dituzte langileei, erabiltzaileei eta bisitariei dagokienez, kutsadura-arriskuak prebenitzeko egokiak baitira.

Kontuan hartuta zentro horietako erabiltzaileek kalteberatasun berezia dutela SARS-CoV-2ak eragindako infekzio larrien aurrean eta heriotza-tasa altua pairatzen ari direla, eta aintzat hartuta transmisioa areagotu egiten dela inguru itxiotan pertsonen hurbiltasunaren eta harreman estuaren bidez, COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren eraginak bereziki latzak dira kolektibo honetan. Hori guztia dela eta, Osasun Sailak hainbat dokumentu egin ditu, zeinak etengabe berrikusten baitira, eta, dokumentu horietan, SARS-CoV-2 koronabirusaren aurrean egoitza eta zentro soziosanitarioetan aplikatu beharreko neurriak eta gomendioak zehazten dira. Honako hauek dira, hain zuzen ere:

- Zentro soziosanitarioetan COVID-19a zaindu eta kontrolatzeko protokoloa, 2021eko maiatzaren 12koa.
- IT-01 Geriatrikoak eta bestelako zentro soziosanitarioak garbitu eta desinfektatzeko neurriak.

Bestalde, eta orain arte hartutako neurri guztiak indarrean mantendu beharri dagokionez, txertaketa-kanpainak aurrera egiten jarraitzen badu ere eta zentro horietan ia erabiltzaile eta arreta ematen duten langile guztiak txertatuta egotea ahalbidetu duela esan daitekeen arren, zentro soziosanitarioetan COVID-19 zaintzeko eta kontrolatzeko Protokoloak (2021eko maiatzaren 12an eguneratua, aipatutako sailak egina) orain arte indarrean zeuden prebentzio- eta kontrol-gomendio guztiei eutsi behar zaiela adierazten du, zentro horiek garbitzeko neurriak barne, txertaketa-kanpainaren egoera edozein dela ere.

Ildo beretik jo du Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko Osasun Publikoko Zuzendaritzak eremu soziosanitarioko egoitza-zentroetan deitutako hainbat greben harira emandako txostenetan; izan ere, garbiketa-zerbitzuei ere eragiten baitzieten (2020ko urriaren 7ko eta 2021eko otsailaren 15eko eta maiatzaren 5eko txostenak), non ezartzen du orain arte indarrean egon diren prebentzio- eta kontrol-gomendio guztiak mantendu behar direla.

Horregatik, osasun-krisia dela-eta osasun-agintariek hartutako neurri eta gomendioen ondorioz, osasun-agintarien neurriek ezartzen duten intentsitatearekin eta aldizkakotasunarekin egin behar da garbiketa-zerbitzua, eta, nolnahi ere, COVID-19ren aurrean ezartzen diren jarduera-protokoloen arabera. Hau da, arreta berezia jarri behar da zentro osoaren garbiketan (desinfektatzea barne), eta maiztasuna handitu behar da txandako garbiketa minimoraino, erabilera komuneko zonetan garbiketa zorrotzagoa eginez eta joan-etorri handiko gunetan eta kontaktu gehien duten gainazalengan ere, besteak beste barandetan, eskubandetan, botoietan, ateen heldulekuetan, etengailuetan, mahaietan, eskaileretan, igogailuetan, iturrietan, teklatueta, telefonoetan, tabletetan, gupil-aulkietan, makuluetan eta abar.

Hori dela eta, osasun-larrialdiaren aurreko deialdietan langileei eta prestazioaren intentsitateari dagokienez gutxieneko zerbitzuek kuantifikazio txikiagoa izan duten arren, SARS-CoV-2 Koronabirusak gaur egun eragiten duen egoera ikusita, eremu horretako gutxieneko zerbitzuek ere nabarmen egin dute gora. Horregatik, COVID-19aren aurrean ezarritako neurriak, osasun-gomendioak eta jarduketa-protokoloak bete ahal izateko beharrezkoa da zeregin horiek ohiko langileen %100ek egitea.

**Hezkuntza arloan,** Umeen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak, Espainiar Estatuak 1990eko azaroaren 30eko Instrumentuaren bidez berretsita, 24. artikuluan umeek ahalik eta osasun-mailarik handienaz gozatzeko eskubidea dutela jasotzen da, eta hartarako funtsezkoak dira higiena, ingurumen-saneamendua eta istripuen prebentzio-neurriak. Horregatik, eta umeak egunaren zatirik handiengan greba-deialdiak eragindako ikastetxe horietan egoten direnez, beharrezko neurriak hartu behar dira aipatutako zentroetan gutxieneko higiena- eta osasungarritasun-baldintzak egon daitezen eta haien osasuna, hazkundera eta garapena arriskuan jar ez daitezen; betiere gazteenek higienari buruzko ezagutza bidezko gaitasun txikiagoa dutela bereziki kontuan harturik.

Aurretik aipatutako esparruetan bezala, COVID-19ak eragindako egoeraren ondorioz, hezkuntza eremuan ere osasun-arloko zein hezkuntzako agintariek hainbat xedapen, neurri eta gomendio onartu eta argitaratu dituzte. Hala, kontuan hartu behar da Osasuneko sailburuaren 2020ko uztailaren 28ko Agindua, zeinaren bidez aldatu egiten baita Osasuneko sailburuaren 2020ko ekainaren 18ko Aginduaren eranskina, COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoak diren prebentzio-neurriei buruzkoa. Agindu horrek ezartzen du aurrez aurreko hezkuntza-, prestakuntza- eta ikerketa-jarduera oro, araubide orokorreko zein bereziko irakaskuntzekin lotuta, etapa eta maila desberdinak barne, eta goi-mailako hezkuntzarekin lotuta, bai eta bizitza osoan zehar kualifikazioak eskuratzea edo areagotzea dakarten ikaskuntza-jarduerekin lotuta daudenak ere, eranskin honetan jasotako arauak betez garatuko dela, eta, nolana ere, Hezkuntza Sailaren “Euskal Autonomia Erkidegoko Ikastetxeetan Koronabirusaren (SARS-CoV-2) aurrean zer-nola jarduteko protokolo orokorra. 2020-2021 ikasturtea” ezarritakoari jarraiki. Horrekin batera, kontuan hartu behar da 23/2021 Dekretua, maiatzaren 7koa, Lehendakariarena, SARS-CoV-2ak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriei buruzkoa. Dekretuaren 3. artikulua ondorengo xedatzen du Hezkuntza-, prestakuntza- eta ikerketa-jarduerei dagokienez: *«Aurrez aurreko hezkuntza-, prestakuntza- eta ikerketa-jarduera oro, araubide orokorreko zein bereziko irakaskuntzei dagokienez, etapa eta maila desberdinak barne, eta goi-mailako hezkuntzari dagokienez, bai eta bizitza osoan zehar kualifikazioak eskuratzea edo areagotzea dakarten ikaskuntza-jarduerei dagokienez ere, eranskin honetan jasotako arauen arabera garatuko da, eta betiere 2020-2021 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Koronabirusaren (SARS-CoV-2) aurka jarduteko Hezkuntza Sailak egindako protokolo orokorraren arabera».*

Pandemia hasi zenetik, hainbat izan dira Hezkuntza Sailak bere webgunean argitaratutako protokoloak (<https://www.euskadi.eus/koronabirusari-buruzko-informazioa/web01-s2hhome/eu/>). Protokolo berrienak, "2020-2021 ikasturterako jarduketa-protokolo osagarria eta ikastetxeetan Covid-19 kasuak agertzen direnerako jardunbideak" izenekoak, "Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan koronabirusaren (SARS-CoV-2) aurrean zer-nola jarduteko protokolo orokorra. 2020-2021 ikasturtea" izeneko protokoloan eta "Lan-arriskuen prebentziorako neurriak EAEko ikastetxeetan, COVID-19ren eraginpean egoteko arriskuari aurre egiteko 2020/2021 ikasturtea" izeneko dokumentuan aurretik ezarritako neurriez gain, neurri gehigarriak proposatzen ditu. Era berean, sail horrek "Covid-19ari aurre egiteko aplikatu beharreko prebentzio-neurriak eskola-jantokietan" dokumentua egin du. Bertan, eskola-jantokietan COVID 19aren transmisioa kontrolatzeko eta murrizteko beharrezkoak diren prebentzio-neurriak ezartzen dira, eta, horrela, pertsonen segurtasuna eta osasuna bermatzen dira, bai ikasleena, bai irakasleena, bai jantokiko langileena ere. Horrez gain, higienerako eta garbiketarako neurri espezifikoak jasotzen dira, bai ohiko jangelentzat, zein jantoki gisa egokitutako espazio edo lokalentzat ere.

Egungo egoera epidemiologikoak, beraz, aldez aurreko protokoloekin alderatuta prebentzio-alderdiak gehitzera bultzatu du Hezkuntza Saila. Gehikuntza hori garbiketaren eremura ere hedatzen da, kutsatzeak saihesteari begira garrantzi berezia hartzen jarraitzen baitu, eta lehen aipatutako protokoloetan jarduera bereziak ezartzen dira arlo horretan, zentro horietan ohiko garbiketa-zerbitzuak indartzera behartzen dutenak.

Horrela, “Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan koronabirusaren (SARS-CoV-2) aurrean zer-nola jarduteko protokolo orokorra. 2020-2021 ikasturtea” izeneko protokoloak ezartzen du pertsonekin kontaktuan dauden gainazalak garbitu eta desinfektatzea ohikoa izan behar dela, kutsatzeak ekidin ditzakeelako; beraz, higiene- eta garbiketa-neurriak areagotzea ezinbestekotzat jotzen du eta “Lan-arriskuen prebentziorako neurriak EAEko ikastetxeetan, COVID-19ren eraginpean egoteko arriskuari aurre egiteko” dokumentuak jasotako instalazioak garbitzeko eta desinfektatzeko prebentzio-neurrietara jotzen du.

Azken dokumentu horretan ondorioztatzen denez, COVID-19aren eraginpean egoteko arriskua dagoenez, ikastetxeetako kontingentzia-planak egiteko garbiketa-protokolo orokor bat izango da, honako hauek jasoko dituenak:

- *Erabiltzen diren gelak garbitzea, gutxienez egunean behin, eta behar duten espazioetan garbiketa areagotzea, erabileraren intentsitatearen arabera; adibidez, komunak egunean hiru aldiz garbituko dira gutxienez. Hor bildurik dago mahai, aulki, tresna eta lan-ekipoen gainazalak garbitzea.*
- *Arreta berezia eskainiko zaie erabilera arrunteko eremuei eta ukipen-azalera ohikoenei, hala nola ate-helduleku, mahai, altzari, eskubanda, zoru, telefono, esekigailu eta antzeko ezaugarriak dituzten beste elementu batzuei.*
- *Garbiketa-neurriak, hala badagokio, langileen eremu pribatuetara ere zabalduko dira; esaterako, atsedeen-eremuetara, aldageletara, armairuetara, komunetara, sukaldeetara (baxera, mahai-tresna eta edalontzi guztiak ontzi-garbigailuan garbituko dira, baita erabili ez dena ere, ikasleen eskuekin kontaktuan egon dela iritziz gero).*
- *Halaber, txanda-aldaketa bakoitzean eta lanaldia amaitzean, partekatutako lanpostuak garbitu eta desinfektatuko dira, eta garbiketa-produktuari jarduten utziko zaio, arreta berezia jarriz altzariei eta eskuztatu daitezkeen beste elementu batzuei, batez ere langile batek baino gehiagok erabiltzen dituenean. Partekatutako ordenagailu bat erabiltzen amaitzean, teklatuaren, saguaren eta pantailaren gainazala garbituko da gel desinfektatzailez.*



- *Fisioterapeutek, garbiketako arduradunek, arropa eta pixoihalak aldatzen dituztenek eta, oro har, ikasleei laguntza ematen dieten langileek erabilitako eremu osoa garbitzen saiatu beharko dute erabili ondoren.*
- *Desinfektatzaileak baliatuko dira, hala nola lixiba-diluzio prestatu berriak (1:50), edo osasun-agintariak baimendu eta erregistratutako birusen aurkako efektudun desinfektatzaileetako edozein. Produktu horiek erabiltzean, etiketaren eta segurtasun-fitxaren oharrak errespetatuko dira beti.*
- *Garbiketa bakoitzaren ondoren, modu seguruan bota behar dira erabilitako materialak eta erabilitako babes-ekipamenduak, eta ondoren eskuak garbitu.*
- *Kontu handia hartu behar da paperontzien garbiketarekin, garbi eta materialak bilduta gera daitezten eta ez dadin gertatu halabeharrezko kontakturik.*

Neurri horiek betetzeko, garbiketa-zerbitzuan aritzen diren ohiko langileen ehuneko jakin bat ezarri behar da. Egungo egoera ikusita, ezinbestekoa da ohiko langileen % 100 bertaratzea.

Aurrekoari dagokionez, argi dago beharrezkoa dela zerbitzu minimo batzuk ezartzea, osasun-, egoitza- eta hezkuntza-zerbitzuen funtsezko izaera zaintzeko; izan ere, zerbitzu horiek ez finkatzeak grebaren bidez lortu nahi den helburua baino kalte handiagoak eragin ditzake, zerbitzu horietan zaintzen diren pertsonen osasuna eta are bizitza ere arriskuan jar bailitezke, haien zaurgarritasuna dela eta.

Garbiketaren eremu horretan bertan, eta EAE baino lurralde-eremu txikiagoko eta denbora-eremu desberdineko deialdiak izan arren, oraintsu eman dira Bigarren Lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 19ko eta martxoaren 12ko aginduak, urtarrilaren 21ean eta 22an eta 2021eko martxoaren 15ean, 16an, 17an eta 18an, hurrenez hurren, grebak egin baitziren Gipuzkoako garbiketa-sektoreko lokaletan eta garbiketa-sektorean. Bietan mantendu egin zen kontingentzia pandemikoaren aurretik ezartzen ziren gutxieneko zerbitzuen gehikuntza, behar-beharrezkoa zen neurrian, hartara, zerbitzu horietara egokitzeko eta erabiltzaileen eta langileen kutsatze-arriskua minimizatzen saiatzeko.

Agindu horiek EAEko hezkuntza-sektorerako garbiketa-zerbitzuetan ezarritako gutxieneko zerbitzuak ezartzen zituen 2020ko irailaren 14ko Aginduak, Arabako egoitza pribatuen eta etxebizitza komunitarioen sektorearentzat (sektore soziosanitarioa) emandako 2020ko urriaren 6ko Aginduak eta OSAKIDETZaren garbiketa-enpresa azpikontratatentzat (osasun-sektorea) 2020ko urriaren 26an emandako Aginduak ezarritako gutxieneko zerbitzuak erreproduzitzen dituzte. Lehenengo bien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoak jarri ziren (925/2020 eta 1013/2020 zenbakidun

errekurtsoak), eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak ezetsi egin zituen 2021eko martxoaren 2ko 93/2021 eta 2021eko otsailaren 24ko 82/2021 epaietan. Bi kasuetan, errekurritutako aginduak zuzenbidearekin bat zetozela adierazi zen.

Ondorioz, eta aipatutako greba-deialdietarako emandako aginduak greba honetako gutxieneko zerbitzuak finkatzeko premisa juridikoa ez badira ere – Doktrina konstituzionalak debekatutako inferentzia –, egiazta daiteke zer ondorio positibo edo negatibo izan dituzten deialdi horietako gutxieneko zerbitzuek ezarritako zaintzek Konstituzioak babesten dituen eskubide eta ondasunetan – Greba eskubidea barne –. Horregatik guztiagatik, agindu honek eutsi egiten die 2021eko martxoaren 12ko Aginduan ezarritako gutxieneko zerbitzuei (2021eko martxoaren 15, 16, 17 eta 18rako Gipuzkoako eraikin eta lokalen garbiketaren sektorerako deitutako greban eman zen agindua), zeinak eutsi egiten baitio pandemia-gertakizunaren aurretik ezartzen ziren gutxieneko zerbitzuak gehitzeari, behar-beharrezkoa den heinean.

Zerbitzu jakin batzuk ezinbestekoak dira, oinarrizko eskubide batzuk betetzen dituztelako, eta zerbitzu horiek bermatu ahal izateko, greba-eskubideari muga batzuk jarri behar zaizkio. Eta arlo horretan eskumen eksklusiboa gobernu-agintaritzak edukitzeak zera bermatzen du, muga horiek zuzenbidearen arabera ezarriko direla, eta, ezarri ere, gobernatzeko erantzukizuna eta ahalmena duenak baino ez dituela ezarriko.

Izan ere, Lan Harremanei buruzko Errege lege-dekretuak (martxoaren 4ko 17/1977 Errege lege-dekretuak) 10.2. artikuluan honako hau xedatzen du: «greba egiten denean edozein zerbitzu publiko edo onartuta dagoen eta geroraezina den beharriazko edozein zerbitzu eskaintzeko enpresetan, eta larritasun bereziko egoerak daudenean, gobernuko agintaritzak beharrezko neurriak hartu ahal izango ditu zerbitzuen funtzionamendua ziurtatzeko» eta «Gobernuak, era berean, horretarako beharrezkoak diren esku-hartze neurriak har ditzake».

Arau horretan –zeina konstituzionala baita (Konstituzio Auzitegiaren 11/1981 Epaia, apirilaren 8koa [RTC 1981\11])–, Konstituzioaren greba-eskubideari buruzko 28.2. artikuluekin bat etorriz, honako hau ezartzen da: «Eskubide horren erabilera arautzen duen legeak beharrezko bermeak ezarriko ditu jendearentzako funtsezko zerbitzuak mantenduko direla ziurtatzeko». Hau da, azken batean, gobernu-agintaritzari ematen zaio ahalmena edozein motatako berme-neurri hartzeko, greba kasuan ezinbesteko zerbitzuei eusteko modua egon dadin, eta hori egiteko neurrietako bat administrazio-ebazpenaren bidez jarduerari eusteko ezinbesteko gutxieneko zerbitzuak ezartzea da, eta lan-prestazio hori eskaini behar duten langileei haiek bete ditzaten eskatzea.

Horregatik, Lan Harremanei buruzko Errege lege-dekretuaren (martxoaren 4ko 17/1977 Errege lege-dekretuaren) 10.2. artikuluan aipatzen den prozedura bideratu da, eta greba deitzaileei eta eragindako enpresari hitz egiteko aukera eman zaie, Jaurlaritzaren proposamenaren eragina jasango duten zerbitzuei eta langileei buruzko proposamenak egin ditzaten.

Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 3. artikulua titularrari esleitzen dizkio irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jarduera-arloak finkatzen dituen) lan-legeria betearaztearen arloan bereganatutako eskumenak. Zehazki, 2.j) atalaren arabera, zerbitzu publikoak edo premia bizia eta atzeraezina duten zerbitzuak ematen dituzten enpresa, erakunde eta instituzioei eragiten dieten greba-eskubidea egikaritzen den kasuetan, erkidegoaren funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela bermatzeko behar diren bermeak ezartzeko eskumena dagokio, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuak eskuordetutako eskumena.

Horregatik guztiagatik, Bigarren Lehendakariordea eta Lan eta Enplegu Sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari gisa, honako hau,

## **EBAZTEN DU:**

**LEHENENGOA.-** Euskal Autonomia Erkidego osoko eraikin eta lokalen garbiketako azpisektore guztietako langileek 2021eko ekainaren 15erako, lanaldi osoan, deitutako greba-eskubidea baliatu dezaten, gutxieneko zerbitzu hauek mantendu beharko dira:

### **1.- Osasun-esparrua.**

Osasun-zentroetan, garbiketa pertsonen segurtasunerako edo osasunerako arrisku larria eta berehalakoa eragiten duten eremuetan egingo da. Horretarako, osasun-gomendioak eta laneko eta/edo osasuneko arriskuen prebentziorako xedapenak eta protokoloak hartuko dira kontuan. Horregatik, honako zerbitzu hauen funtzionamendurako beharrezko garbiketa bermatuko da: larrialdiak, ebakuntza-gelak, edukiontzietako osasun-hondakinen bilketa, sukaldea, janari-banaketa eta ospitaleratutako gaixoei beharrezko arreta, eta garbiketa sakona, desinfekzioa barne, egingo da zentro eta eremu guztietan, batez ere, erabilera komuneko eta joan-etorri handiko guneetan eta kontaktu gehien duten gainazaletan ere, besteak beste barandetan, eskubandetan, botoietan, ateen heldulekuetan, etengailuetan, mahaletan, eskaileretan, igogailuetan, iturrietan, teklatuetan, telefonoetan...

Aipatu ditugun lan horiek, eta ez beste batzuk, zerbitzu horiek eman ohi dituzten langileen% 100ek egingo dituzte, lan horiek egiteko behar den denborarako soilik.

## **2.- Egoitza-esparrua**

Egoitza geriatriko, etxebizitza komunitarioak, tutoretzapeko apartamentuak, eguneko zentro eta adingabeen zentroetan pertsonen segurtasun edo osasunerako arrisku larria eta berehalakoa dakarten eremuetan baino ez da garbiketa egingo. Horretarako, Osasun Saileko zentro soziosanitarioetan COVID-19a zaindu eta kontrolatzeko protokoloa, 2021eko maiatzaren 12koa, IT-01 Geriatrikoak eta bestelako zentro soziosanitarioak garbitu eta desinfektatzeko neurriak eta zentro bakoitzak egindako kontingentzia-planak kontutan hartuko dira. Horrela, garbiketa sakona bermatu beharko da, desinfekzio barne, zentro guztian, batez ere, erabilera komuneko eta joan-etorri handiko gunetan eta kontaktu gehien duten gainazalaren ere, besteak beste barandetan, eskubandetan, botoietan, ateen heldulekuetan, etengailuetan, mahaietan, eskaileretan, igogailuetan, iturrietan, teklatuetan, telefonoetan, tabletetan, makuluetan...eta, gutxienez, txanda bakoitzean, behin egin beharko da.

Aipatu ditugun lan horiek, eta ez beste batzuk, zerbitzu horiek eman ohi dituzten langileen% 100ek egingo dituzte, lan horiek egiteko behar den denborarako soilik.

## **3.- Hezkuntza-arloan**

Ikastetxeetako garbiketa-zerbitzua bermatzen da. Horretarako ondorengoak kontuan hartuko dira: “2020-2021 ikasturterako jarduketa-protokolo osagarria eta ikastetxeetan Covid-19 kasuak agertzen direnerako jardunbideak” protokoloa, maiatzaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Koronabirusaren (SARS-CoV-2) aurrean zer-nola jarduteko protokolo orokorra. 2020-2021 ikasturtea” eta “Lan-arriskuen prebentziarako neurriak EAEko ikastetxeetan, COVID-19ren eraginpean egoteko arriskuari aurre egiteko” eta “Covid-19ari aurre egiteko aplikatu beharreko prebentzio-neurriak eskola-jantokietan” dokumentuak, bai eta zentro bakoitzak egindako kontingentzia-planaren barruan jasotako garbiketa protokoloa ere. Horrela, garbiketa sakona, desinfekzioa barne, bermatuko beharko da hurrengo esparru eta osagarrietan:

- Erabilitako gelen garbiketa, gutxienez egunean behin, eta indartu erabileraren intentsitatearen arabera beharrezkoa den gunetan, adibidez, komunetan, gutxienez egunean 3 aldiz. Mahai, aulki, tresna eta lan-ekipoen gainazalak garbitzea barne.
- Arreta berezia jarriko zaie erabilera erkideko guneei eta ukipen-azalera ohikoenei, hala nola ate, mahai, altzari, eskubanda, zoru, telefono, pertxa eta antzeko beste elementu batzuei.

- Garbiketa-neurriak langileen gune pribatuetara ere zabalduko dira, hala nola atsedenekuetara, aldageletara, armairuetara, komunetara, sukaldeetara (bertan, ontzitegi osoa, mahai-tresnak eta beirateria garbituko dira ontzi garbigailuan, baita erabili ez baina ikasleen eskuekin harremanetan egon ahal.
- Era berean, partekatutako lanpostuak garbitu eta desinfektatuko dira txanda aldaketa bakoitzean eta lanaldia amaitzean, garbiketa-produktuak jardun dezan utziz, eta arreta berezia jarriko zaie altzariei eta manipulatu daitezkeen beste elementu batzuei, batez ere langile batek baino gehiagok erabiltzen dituenen. Erabilera partekatuko ordenagailu bat erabiltzen amaitzean, teklatuaren, saguaren eta pantailaren gainazala garbituko da, gel desinfektatzailearekin.
- Paperontziak garbi daudela zaindu behar da, garbi eta bildutako materialekin, ustekabeko kontakturik ez izateko.

Aipatu ditugun lan horiek, eta ez beste batzuk, zerbitzu horiek eman ohi dituzten langileen% 100ek egingo dituzte, lan horiek egiteko behar den denborarako soilik.

**BIGARRENA.-** Zerbitzu horiek greba egin behar ez duten langileek emango dituzte, ahal izanez gero.

Langileen ordezkarietara entzun eta gero, Enpresa Zuzendaritzak izendatuko ditu gutxieneko zerbitzuak bete behar dituzten langileak eta langile horiek txandaka bete behar dituzten eginkizunak. Nolanahi ere, aurreko artikuluan nahiz indarreko legedian ezarritako mugak errespetatu beharko dira.

**HIRUGARRENA.-** Agindu honen aurreko zenbakietan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketa edo geldialdien ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontraktat joko dira, eta horiek egiten dituztenak erantzule izango dira, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

**LAUGARRENA.-** Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

**BOSGARRENA.-** Agindu hau jakinarazten den egunean jarriko da indarrean.



**SEIGARRENA.-** Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzietarako errekurtsua jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion salan, ebazpena jakinarazten denetik kontatzen hasita 2 hilabeteko epean, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenak) xedatutakoaren arabera.

Era berean, eta urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsua aurkez daitekeela lan-agintaritzan, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, 2021ko ekainaren 11n.

**BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA  
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUA**